

OHIKO UDAL OSOKO BILKURAREN AKTA

Bilera-zenbakia: 2023IPLE0013

Eguna: 2023-09-26

Ordua: 19:00 – 19:45

Tokia: Udaletxeko areto nagusia

Bertaratuak

- Xabier Urdangarin Lasa Astigarragako EH Bildu
- Ainara Vazquez Martinez Astigarragako EH Bildu
- Naroa Del Orden Otero Astigarragako EH Bildu
- Joseba Ilari Etxeberria Calvo Astigarragako EH Bildu
- Aitor Guemes Oiarbide Astigarragako EH Bildu
- Andoni Gartzia Arruabarrena Astigarragako EH Bildu
- Estibaliz Neira Martinez Astigarragako EH Bildu
- Beatriz Lasagabaster Izagirre Astigarragako EH Bildu
- Maria Otaegi Velez Astigarragako EAJ-PNV
- Iñigo Touzani Velasco Astigarragako EAJ-PNV
- Manex Aldalur Beldarrain Astigarragako EAJ-PNV
- Olaia Pastoriza Santos Astigarragako EAJ-PNV
- Patxi Suarez Perez Udal talde euskal sozialistak

Bertaratu ez direnak

Idazkaria

- Kontxi Urdampilleta Santamaria

Bertaratutako udal teknikariak

- Amaia Bengoetxea Arrozpide, ordezeko udal kontu-hartzailea
- Almike Arrastua, toki garapenerako teknikaria.
- Saioa Sese, ingurugiro eta jarduera teknikaria.

Aztergaiak

1. 2023ko uztailaren 18ko akta onartzea.
2. 2024ko zerga ordenantzak. Hasierako onarpena
3. Partaidetza prozesuak eta Plan Estrategikoa 2030.
4. Informazioa, galdera eta eskariak.

Esan-eginak eta erabakiak

1. 2023ko uztailaren 18ko akta onartzea.

Akta aho batez onartu da.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaría
idazkaritza@astigarraga.eus

2. 2024ko zerga ordenantzak. Hasierako onarpena

Alkateak azaldu du proposamena lantzeko hainbat faktore hartu dira kontuan: batetik, KPI eta Udal zergen azkeen urteetako bilakera (2019-2023 urteetan EAEko KPIa %18,3 igo zen eta udal zergen bilakera %3,5koa izan zen eta pandemia eta energia krisiak eraginda, tasa eta zergak izoztu edota KPIaren azpitik igo ziren. Ondorioz, udalaren erosteko ahalmena 15 puntu inguru jaitsi da); bestetik, Astigarragako familien errenta erabilgarria izatea eskualdeko herrietako familien batez besteko altuena, eta EAE eta Gipuzkoako batez bestekoaren gainetik egotea; eta azkenik, udal zerga eta tasen presio fiskala (eskualdeko udalen batez bestekoaren azpikoa dena, eta kasu askotan, bi edo hiru baxuenetan kokatzen dena).

Jarraian, proposamenaren nondik norakoak azaldu ditu: zergen igoerari dagokionez, irizpen orokorra dela %3,5a igotzea (hau da, KPI+1 gutxi gorabehera) eta eskualdeko beste udalekin alderatuta nabarmen beherago dauden zerga eta tasa batzuetan %7a; eta hobari sistemari dagokionez, indartu egingo dela, gehieneko errenten kopurua %10 igoz, herritar eta familia gehiagok hobari-sistemari heldu ahal izateko, eta alegazio epean, proposatuko dela hobariak eta laguntzak emateko, errentaz gain, ondasunak ere kontuan hartzea. Halaber, azaldu du alegazio epean beste hainbat moldaketa egin beharko direla, San Marko eta beste erakunde batzuen datuak oraindik ez direlako ezagutzen.

Maria zinegotziak hitza hartu eta adierazi du batzordeetara ezin izan zela bertaratu lana zuelako, eta eskatu du batzordeak eguarditan edo arratsaldetan egitea. Bestetik eta proposamenei dagokionez, adierazi du ezin dutela babestu, herritarren errenta erabilgarria beste herriarekiko altuagoa izan arren, horrek ez duelako esan nahi beren egoera ona denik, eta gaineratu du atentzioa deitzen diela udalak erosketa ahalmena berreskuratu nahi izatea, herritarrenaren kontura.

Patxi zinegotziak hitza hartu eta adierazi du deialdia legez ongi eginga egon arren, eskertuko lukeela horrelako gaitetan eta dokumentazioa ugaria denean, hori lehenago bidaltzea, proposamenei ekarpenak egiteko aukera hobea izateko. Zerga ordenantzari dagokionez, adierazi du berak ere kontra bozkatuko duela, badakiela zerbitzuak defizitarioak direla, baina proposatzen duela KPIa bakarrik igotzea eta IBIren kasuan "eko kanona" ezartzea. Bukatzeko azaldu du hobariak behar bezala aztertzeke astirik ez duela eduki, eta ezin dituela ekarpenik egin horren inguruan.

Maria zinegotziak hitza hartu eta berak ere eskatu du informazio hain zabala denean lehenago bidaltzea.

Alkateak hitza hartu eta azaldu du gaia bi ogasun batzordeetan aztertu dela (irailaren 19an eta 26an) eta dokumentazio guztia bidaltzeaz gain, hasierako izaeraz onartuko denez, alegazioak aurkezteko aukera dagoela. Azaldu du hobari sistema ez dela aldatu eta lehenetik aztertzerik zegoela. Azkenik eta proposatu den igoerari dagokionez, azaldu du %7a igotzea (kasu gutxi batzuetan bakarrik egingo dena) bakarrik planteatu dela presio fiskala nabarmen txikiagoa den kasuetan, zerbitzuak goraka egin dutela eta ez dela beste modu bat ikusi egokitzeko, dena den, hobari sistemaren bidez babestuko dela ordaintzeko arazoak dituztenei.

Andoni zinegotziak hitza hartu eta azaldu du: batetik, oposizio udal-taldeak zergak ez igotzea edo KPIa igotzea proposatu arren, gobernatzen duten udalerrietan %4ko igoerak proposatu direla; bigarrenik, legeak eskatzen duela gaia ogasun batzorde batean aztertzea eta kasu honetan bitan aztertu dela; eta azkenik, Patxi eskatzen duen kanona ezin dela aplikatu, horretarako Eusko Jaurlaritzak ez dituelako bere etxekolanak egin, ez baitu etxebizitzaren erregistroa sortu. Bukatzeko María zinegotziari adierazi dio liberatuta dagoela.

Azken horrek Andoni eta Maria zinegotzien arteko eztabaida eragin du.

Gainera, Maria zinegotziak azaldu du beraiek ez dutela beste udalerrietako akordioak aztertzen, Astigarraga bakarrik hartzen dutela kontuan, eta badakitela udalaren eros ahalmena jeitsi dela, baina baita herritarrena ere. Bukatzeko adierazi du bere taldeak ez duela eskatu zergak ez igotzea, ez dutela proposametik egin, bere



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Sekretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

lana baita udal gobernu taldea fiskalizatzea.

Jarraian alkateak ogasuna eta ondarea batzorde informatiboaren irizpen hau aurkeztu du onartua izan dadin.

Lehena.- Ordenantza fiskalei buruzko Testu Bateginaren hasierako onespena, 2024ko urtarrilaren 1ean indarrean jartzeko.

Bigarrena.- 11/1989 Foru Arauaren 16. artikuluan xedatutakoari jarraikiz, hasierako onespeneren erabakia jendaurrean jarriko da 30 egun baliodunez.

Hirugarrena.- Alegaziorik aurkeztuz gero, Ogasun batzordeak egiten duen irizpenaren proposamenaren arabera ebatziko dira.

Laugarrena.- Alegaziorik aurkezten ez bada, hasierako onspen-erabakia behin betiko bihurtuko da beste erabaki bat hartu behar izan gabe.

Bozkatzera ekin zaio, eta irizpena onartu da aldeko 8 botoekin (Astigarragako EHBildu kideena) eta kontrako 5 botoekin (Astigarragako EAJ-PNV eta Udal Talde Euskal Sozialistak kideena).

3. Partaidetza prozesuak eta Plan Estrategikoa 2030.

Alkateak ezagutzera eman ditu datozen hilabeteetan gauzatuko diren partaidetza-prozesuak: Berdintasun plana, Euskara plana, Irisgarritasun plana eta Plan Estrategikoa 2030.

Jarraian Plan Estrategikoa 2030-ari hasiera eman zaio, horretarako Almike eta Saioa udal teknikariek horren helburua, nondik norakoak, prozesuaren ardatzak eta kronograma azaldu dizkiete udal ordezkari politikoei.

Patxi zinegotziak egindako aurkezpenaren bidaltzerik duten galdetu die udal teknikariei, eta erabaki da aurkezpena (akta honi atxikitzen zaiona) emailaz bidaltzea zinegotzi guztiei.

Bukatzeko alkateak adierazi du herritarrei aurkezpena urriaren 4an egingo zaiela.

4. Informazio, galdera eta eskariak.

Alkateak azaldu du batetik, esleitu diren azken kontratazio-espeditenteen kontratuak sinatu direla; bestetik, udala parte den erakundeetako eratzeko bilerak egin direla; eta azkenik, martxan dauden hautaketa-prozesuaren egoera (adierazi du behin behineko zerrendak argitaratu direla, eta espero dela aste santu eta udala bitarte bukatzea prozesuak).

Olaia zinegotziak azaldu du azken gizarte batzordean dokumentazioa bi korreetan jasoko zela esan arren, baina bigarrena ez zuela jaso, gainera eskatu du ahalik eta azkarren esatea batzordeak zein egun eta orduetan izango diren, lanarekin uztartu ahal izateko.

Horren harira María zinegotziak adierazi du esan zitzaizela udal taldeetako bozeramaileei batzorde guztietako deialdiak bidaliko zitzaizela, eta batzorde horren kasuan, bidali zitzaizela batzordea egin ondoren.



Astigarragako Udala

Idazkaritza – Secretaria
idazkaritza@astigarraga.eus

Alkateak bilkura amaitutzat eman du, eta nik, Idazkariak eztabaidatua eta erabakitakoa jasota gera dadin honako agiria egin dut

Astigarragan, 2023ko irailaren 26an

Kontxi Urdampilleta Santamaria
Ordezko idazkaria

NAHI DUGUN ASTIGARRAGARANTZ





tokiko
garapen
jasangarria

eus-
kara

iris-
garrita-
suna

berdin-
tasuna

A*

Nahi dugun
Astigarragarantz
Herri gogoetak

Nahi dugun *
Astigarragarantz
Herri gogoetak

A * iris-
garrita-
suna

A * eus-
kara

A * berdin-
tasuna

A * tokiko
garapen
jasangarria

Toki Garapen Jasangarri Plana

Lurralde garapen jasangarri baterantz: ingurumen iraunkor, ekonomikoki bideragarri eta gizarte zuzen eta inklusiboa xede (Nazio Batuak)

ARLO SOZIALA



ARLO EKONOMIKOA



INGURUMEN-ARLOA




GOBERNANTZA



Toki Garapen Jasangarri Plana

Iraunkortasun eta toki garapeneko ibilbideak




Toki Garapen Jasangarri Plana

Nola lurreratu da hau tokiko-mailan?




udalsarea 2030
udalerrri jasangarrien euskal sarea
red vasca de municipios sostenibles



59 udalerrrik eta 2 eskualdek dute dagoeneko Tokiko 2030 Agenda Plana, edo lanean ari dira

Toki Garapen Jasangarri Plana

Prozesuaren ardatzak



Toki Garapen Jasangarri Plana



Toki Garapen Jasangarri Plana

Kronograma

ASTIGARRAGA 2030 PLAN ESTRATEGIKOA																												
KRONOGRAMA *A: ASTEA	IRA. 36A	IRA. 37A	IRA. 38A	IRA. 39A	URR. 40A	URR. 41A	URR. 42A	URR. 43A	AZ. 44A	AZ. 45A	AZ. 46A	AZ. 47A	AZ. 48A	AB. 49A	AB. 50A	AB. 51A	AB. 52A	URT. 1A	URT. 2A	URT. 3A	URT. 4A	URT. 5A	OTS. 6A	OTS. 7A	OTS. 8A	OTS. 9A		
1. PROZESUAREN DISEINUA																												
1.1. Proposamenaren birplanteamenduen aurkezpena																												
1.2. Politikariekin hasiera bilera			09/26																									
1.3. Talde eragilearen sorrera																												
1.4. ALKATEAREN AURKEZPEN PUBLIKOA					10/04																							
2. DIAGNOSTIKOA BURUTZEA																												
2.1. Eskualdeko eta udaleko teknikariek A2030 eta GJH-en inguruko formakuntza						10/10																						
2.2. Udaleko eta udalaz gaindiko informazio iurriak bildu eta azterzea																												
2.3. Herritar eta eragileen mapatzea																												
2.4. Safariaren ordezkio komunikazio ekintza																												
2.5. Diagnostikoaren zirriborroa burutzea kontrasterako eta <i>Foru Aldundiari zurietarako bidali</i>																												
2.6. Talde eragilearekin saioa diagnostikoaren kontrasterako													11/07															
2.7. 1. DOKUMENTUA: Egoeraren diagnostikoa eta lehenetazko jardun-eremuen definizioa																												
3. FORMULAZIO ESTRATEGIKOA																												
3.1. Herritar eta eragileekin parte-hartze saioa diagnostikoaren emaitzak partekatzeko																												
3.2. Politikariekin lan-saioa erronka estrategikoak eta ikuspegia lantzeko																												
3.3. Herritar eta eragileekin parte-hartze saioa formulazio estrategikoaren kontraste eta ekarpenetarako																												
3.4. Ekintza-planaren proposamen bat garatzea eta kontrastatu ondoren, doitzea																												
3.5. Talde eragilearekin (+ eskualdeko profilak) saioa ekintza-planaren eskemaren kontrasterako																												
3.6. Herritar eta eragileekin parte-hartze saioa ekintza proposamenen kontraste eta ekarpenetarako																												
4. ASTIGARRAGA 2030 PLAN ESTRATEGIKOA BURUTZEA																												
4.1. Planaren karakterizazioaren proposamena, eta kontrastatu ondoren doitzea																												
4.2. Talde eragilearekin saioa ekintzak karakterizatu eta zehazteko																												
4.3. Politikari, udal eta eskualdeko teknikariek Planaren balidazioa																												
4.4. Planaren kudeaketa eta jarraipenaren proposamena																												
4.5. 2. DOKUMENTUA: Plan estrategikoaren ekintzak eta jarraipen eta ebaluazio sistema																												
4.6. Prozesuaren emaitzak aurkeztu eta Udal adierazpena sinatzeko ekitaldia (Gainontzeko prozesuekin elkarlanean)																												

Toki Garapen Jasangarri Plana

Prozesuaren gakoak



PROZESUA ASTIGARRAGAKO TESTUINGURURA KOKATZEA

- Beterri Buruntza Udalak
- Tokiko Garapenean egindako lanketa
- Iraunkortasunean eskarmentua
- Testuinguru sozioekonomikoa
- Herriko eragileak



GOBERNATZA EREDUA

- Udaleko beste prozesuekin koordinazioa bermatzea
- Jarraipenerako lan-talde egonkorra
- Komunikazioa esfortzu bateratuak



TOKIKO ERRONKAK IRAUNKORTASUNEAN, GENERO- IKUSPEGIA ZEHARLERROKATUZ, HIZKUNTZA BALIOAN JARRIAZ

- Prozesu teknikoan
- Barne parte-hartzean
- Herritarren parte-hartzean
- Komunikazioan